



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# OPOSIZINOETARA AURKEZTU ZAN PERSONA BATEK ORAIN LAU URTEKO GUFÉ-REN EEP-A BEHIN BETIKO EBAZTEKO ESKATU DAU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Adrián Oiarbidek, azterketak gainditu ebazan hautagaietako batek, Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean adierazo dauenez, 2016-2017 LEParen kontra aurkeztutako administrazioaren aurreko auzi-errekurso batzuk erizaintzako 26 plazen sinadurea geratuazoten ari dira.**

(Bilbon, 2020ko garagarrilaren 3an). Adrián Oiarbide, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko (GUFÉ) 2016ko eta 2017ko LEPeke erizaintzako 26 plaza eskuratzeko prozesuko azterketak gainditu ebazan hautagaietako batek, orain lau urte hasi zan eta oraindino ebatzi bako epaibidezko errekurso bi dituan oposizinoa “atoan ebazteko” eskatu dau gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-emonetarako Batzordean.

Oiarbidek, 2016ko eta 2017ko LEPea 26 persona kontratetako prozesua deskribidu dau batzarretako taldeen aurrean. Lau probak (test motako azterketa bi, azterketa teknikoa eta euskerazko proba) 2018tik 2019aren amaieraren artean egin ziran. Prozesu horrek erreklamazioak eragin ebazan aukeraketa prozesuan parte hartu eben personen artean, eta hori dala eta, LEPea behin betiko ebaztea geldik itzi daben administrazioaren aurreko 3 auzi prozesu etorri ziran. Oposizinoetara aurkeztu zan personak adierazo dauenez, bagil honen hasieran horreetako batek bigarren azterketako galderetako bat baztertu dau. Hori holan izanda, persona gehiagok gaindituko eben proba. “Hamahiru persona gehiago” (aurkeztu ziran 488 personetatik 30ek baino ez eben proba hori gainditu) izango ziran proba gaindituko ebenak. Dana dala, une haretan “inork ez eban ezer esan”; hainbat sindikaturen jokabidea be kritikau dau.

Oposizinoetara aurkeztu zan personak epai hori “errekurritzeko” eta “izendau eban epaimahaiaren erespidea bukaera arte defendiduteko” eskatu deutso GUFÉri, “oposizinoa gainditu eben personak diralako epaimahai horren eretxiz gaitasun handiagooa, ezagutza maila altuagooa, erakutsi ebenak, profesional kualifikauenak euki gura dituan kalidadeko zerbitzu publikoaren mesederako”. “Plaza horreek besteen baldintza bardinakaz eskuratzeko eskubidea kentzen jaku”, esan dau.

Oiarbidek azaldu dauenez, “herritarrak Administrazioagaz hartu-emonak izateko modua dago jokoan” eta, horregaitik, prozesuaren ebazpena arintzea



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

eskatu dau, izan be, une honetan, GUFEk “%40tik gorako” aldi baterakotasuna jasaten dau. “Ia oposizino guztietan aurkezten dira errekursoak, eta ia guztietan kontratazinoko epaimahaiak hartzen dau ebazpena”. Bere kasuan, LEPa “etenda dau berez, zuzenbidez etenda egon ez arren”.

Batzarretako taldeek kasuaren ganeko informazio “zehaztua” eskertu deutsie Oiarbideri eta, aldi berean, GUFeko behargin guztiek Covid-19aren pandemian egin daben beharra eskertu dabe. Oposizinoak esan dau errekursoa jaso dauen kontratazino prozesuaren ganeko “argibideak” eskatuko deutzazala Aldundiari. EAJ-PNVko lerroetatik “zuhurtzia” eskatu dabe, eta aurkeztu diran ganerako salaketak ebatzi arte “itxarotea”, “segurtasun juridikoa dala eta”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# UN OPOSITOR PIDE EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA LA RESOLUCIÓN DEFINITIVA DE LA OPE DEL IFAS DE HACE CUATRO AÑOS

- **Adrián Oiarbide, uno de los aspirantes que aprobaron los exámenes, declara en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía que varios recursos contenciosos-administrativos de la OPE 2016-2017 están paralizando la firma de 26 plazas de enfermería.**

(Bilbao, a 3 de julio de 2020). Adrián Oiarbide, uno de los aspirantes que aprobaron los exámenes del proceso de provisión de 26 plazas de enfermería en la OPE 2016 y 2017 del Instituto Foral de Asistencia Social-IFAS, ha pedido hoy en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales de Bizkaia, que se “resuelva ya” una oposición que comenzó hace cuatro años, y que está sujeta todavía a dos recursos judiciales sin resolver.

Oiarbide ha descrito ante los grupos junteros el proceso de contratación de 26 personas de la OPE de 2016-2017, cuyas cuatro pruebas (dos exámenes tipo test, un psicotécnico y una prueba de euskera) se realizaron entre 2018 y finales de 2019. Dicho proceso provocó reclamaciones en personas que participaron en el proceso de selección y que culminaron en 3 procesos contencioso-administrativo abiertos que han paralizado la resolución definitiva de la OPE. A principios de este mes de junio uno de ellos ha eliminado, según el opositor, una de las preguntas del segundo examen, lo que hubiera provocado que más opositores pasaran la prueba. “Trece personas más” (solo 30 superaron esa prueba de un total de 488 personas) podían haber aprobado, aunque en ese momento “nadie protestó”; criticando también la postura de varios sindicatos.

El opositor ha pedido que el IFAS “recurra” esta sentencia y “defienda el criterio del tribunal que nombró hasta el final”, porque son “las personas que aprobaron las que a criterios de este tribunal demostraron mayor capacitación, mayor nivel de conocimientos en beneficio de un servicio público de calidad que quiere contar con los profesionales más cualificados”. “Se nos quita el derecho de acceder a esas plazas en igualdad de condiciones”, ha lamentado.

Oiarbide ha explicado que “está en juego la forma en la que los ciudadanos nos relacionamos con la Administración” y, por ello, ha pedido que se agilice la resolución del proceso, ya que el IFAS sufre actualmente una temporalidad “superior al 40%”. “En casi todas las oposiciones está habiendo recursos y en



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

casi todas resuelve el tribunal de contratación”. En su caso, la OPE está “suspendida de hecho, pero no de derecho”.

Los grupos junteros han aprovechado la presencia de Oiarbide para agradecer la información “detallada” sobre el caso y, al mismo tiempo, la labor de todo el personal del IFAS en la pandemia del Covid-19. La oposición se ha conjurado para solicitar “aclaraciones” a la Diputación en este proceso de contratación recurrido. Desde las filas del PNV han pedido “prudencia” y “esperar” a que se resuelvan el resto de denuncias presentadas “por seguridad jurídica”.